Ekainaren 13ko hauteskundeak ◆ Nafarroa

Botoemaile aurrerakoiei «iruzur egitea» egotzi diote EH-Nafarroak eta EAk PSNri

Bi indar abertzaleok akordioak lotu nahi dituzte Nafarroako hainbat udaletan

Juan Kruz Lakasta / **Iruñea**

EH-Nafarroako eta EAko buruek bilera egin zuten atzo, Foru Gobernua osatzeko aukerak aztertzeko. Bi alderdi abertzaleon aburuz, oso litekeena da UPNk eta PSN-PSOEk Gobernurako akordioa lotzea. Hori dela kausa, uste dute alderdi sozialistak iruzur egin diela botoemaile aurrerakoiei.



JOXE LACALLE

EAko eta EHko parlamentari nafarrak Alkartetxean bildu ziren atzo Foru Gobernua osatzeko aukerak aztertzeko.

HAUTESKUNDEEN biharamunean Pernando Barrenak iragarri bezala, EH-Nafarroak UPN ez beste alderdi guztiekin bilerak egiten hasi da, gobernu aurrerakoia osatzeko aukerak aztertzeko. Atzo Iruñeko Alkartetxean izan ziren Pernando Barrena, Santi Kiroga eta Felix Jose Puyo EHko parlamentarioak, Begoña Errazti eta Jose Mari Aierdi EAko hautetsiekin bilera egiteko.

Gobernua osatzeko aukerak aztertzeaz gain, EA edo eta EH zerrenda bozkatuena den herrietan akordioak egiteko aukera aztertu zuten. Halaber, Parlamentuan oposizioan badaude zenbait alorretan haien lana koordinatzeko adostu ziren. Nolanahi ere, bi alorroi dagokienez, xehetasunak hurrengo bilerarako utzi zituzten.

Topaketaren ondotik Pernando Barrenak azaldu zuenez, «eskandalagarria da hauteskundeak egin eta 48 ordu baino lehen UPNrekin biltzea PSN, eta akordioa gauzatzeko aukera ugari daudela esatea bileratik ateratakoan».

«Lan serioa eginen du oposizioan EHk»

Foru parlamentarioak iragarri zuen EHk oposizio lan «serioa» eginen duela, baldin eta UPNren eta PSNren arteko akordioa gauzatzen bada. «Hori gertatuz gero, oposizioaren erreferentzia nagusia izanen gara, eta lan politiko garrantzitsua egin beharko dugu. Jarrera arduratsua izanen dugu, eta lan egin gogoz ezkerreko balioetan oinarriturik».

Halaber, azaldu zuen EHrentzat ez litzatekeela kontraesankorra izanen PSNrekin akordioak lotzea. «Lehentasuna emanen genioke UPN Gobernutik kentzeari, eta ez genuke sustengua musu truk emanen. Behin eta berriz azaldu dugunez, kudeaketan ezkerrera egitea eta erakundeek Nafarroa abian den prozesuan protagonista izan dadila bermatzea eskatuko genukeen».

PSNko idazkari nagusi Juan Jose Lizarbek behin baino gehiagotan adierazi du UPNrekin bat egin nahi duela, besteak beste, gorakada handia izan duten indar abertzaleen estrategiari aurre egiteko. Begoña Errazti gogor erantzun zien atzo adierazpen horiei: «Abertzaleon xede bakarra gizartearentzat hoberena lortzea da, eta Lizarbek ez badu sinesten, guregana etor dadila. Guk ez dugu inor behartu UPNrekin bat egitera. Lizarbek jakinen du zergatik egiten duen. Nik esanen nuke zerbaitek harrapatuta daukala».

«Hauteskundeetan Euskal Herriaren eraikuntzaren bidea indarberriturik atera da», dio Jarraik

Erredakzioa / **Donostia**

JOAN DEN igandean egindako hauteskundeetan, «Euskal Herriaren eraikuntzaren bidea indarberriturik atera» dela adierazi du Jarrai erakundeak, prentsa ohar batean.

«Euskal Herriak ezinbestekoa duen independentzia eta sozialismoaren bidean, urrats eraginkorrak egiteko oinarri sendoa jarri dugu berriro ere», dio Jarraik.

Bide horretan, gazte erakundearen ustez, «igandean egindako indar bilketa, etorkizunerako apustu bilakatu behar dugu».

Era berean, «Euskal Herriak Estatuarekin dituen loturak apurtu behar ditugu», adierazi du Jarraik.

Horrez gain, euskal gazteriak egiteko asko duela esan du, «irabazteko asko dugulako». Hori dela eta, «eguneroko lanean herriz herri nazio eraikuntza sendotzeko» deia egin dio Jarraik euskal gazteriari».

Jarrairen iritziz, «Euskal Herritarrok-en 280.000 indar horiek guztiak nazio eraikuntzaren indarrak izan behar dute. Bat bera ere ezin da albo batera utzi; izan ere, Euskal Herriaren eraikuntza abian da eta, geldiezina da». «Gure nazioaren eraikuntzari ekin behar zaio», dio Jarraik idatzian.